

MONDRAGONeko auto elektrikoaren aurkezpena.

2010/06/29

Joan zen ekainaren 18an Mondragon Taldeak hiriko auto elektrikoaren lehenengo prototipoa aurkeztu zuen. Honen diseinu eta garapenean Mondragon Unibertsitateak leku nabarmena izan du. City Car izeneko auto hau iraultza bat da auto txiki elektrikoaren segmentuaren barruan, erakargarria da, bizigarritasuna du, txikia da eta prestazio onak ditu.

Mondragon Unibertsitateak argi eta garbi egin du ibilgailu elektrikoaren aldeko apustu estrategikoa, orain dela hamabost urtetik hona: hasieran, ibilgailu elektrikoaren maila nazionalerako prototipoa sortu zen (ZEUS) eta, gaur egun, City Car garatu du, eta datozen urteetan bultzada handia eman nahi zaio. Helburu horrekin, MUK eta Mondragon Automociónek kooperatiba berri bat eratzea erabaki dute, CIDIA izeneko (Ibilgailuen Industriaren Diseinu eta Garapenerako Ingeniaritza Zentroa).

Ibilgailuaren ezaugarriak : [klikatu hemen](#)

